

LAUGARREN HIZKUNTZA-ESKAKIZUNA

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren C2 maila

IDATZIZKO AZTERKETA

- **Idatzizko azterketak bi proba ditu.**
- **3h 10 min.** dituzu irakurmenaren eta idazmenaren ariketak egiteko.

Proben ezaugarriak	Aurreikusitako denbora	Puntuazioa (gehienez)	Puntuazioa (gutxienez)
<p>IRAKURMEN-PROBA</p> <p>Hiru ariketa dauzka. Hirurak egin behar dira. Hiru irakurgai eta guztira 25 galdera. Balio berekoak (0,8 puntu). Gainditzeko, 13 erantzun behar dira zuzen. Txarto erantzuteagatik ez da punturik kenduko. Testuen luzera guztira: 1.800 hitz gehienez.</p>	60-70 min.	20	10
<p>IDAZMEN-PROBA</p> <p>Bi ariketa ditu. Biak balio berekoak (15 puntu). Biak egin behar dira eta eskatutako hitz kopurua bete. Eskatutako hitz kopurua ez idazteagatik puntuak kenduko dira.</p>	120 min.	30	15

- **Azterketa-koaderno hau ez da jasoko, zeuretzat da.**
- **Ariketak** horretarako eman zaizkizun aparteko orrietan egin.
- **Irakur itzazu** atal bakoitzean datozen **argibideak** eta egizu bertan jartzen duena.

4. HE

IRAKURMENA

■ **1. ariketa: aukera anitzeko galderak**

Irakurri ondorengo testua eta erantzun testu horri buruz jarraian egiten zaizkizun galderari.
 Markatu erantzuna. Bakarra da zuzena.

ATEISMOAREN KRITIKA

XVIII. mendean, Ilustrazio frantsesak erlijio katolikoarekin apurtu arren, hiru fede berri jarri zituen: arrazoaia (zientzian), gizakiaren identitate unibertsal aldeezina (Vico eta Herderrek ondoren arbuaiatua) eta beste sinesmen berri bat, arrazoiaren bidez betiko bakea lortzera bideratutako bakea. Ilustrazioak, hortaz, fede kristaua sekularizatu baino ez zuen egin, objektuz aldatu. Kontuan hartu behar da historiako garai kritikoen omen den honek Jainkoaren beharraren gose handiena eraitsi duena ere izan dela. Voltaire erlijio katolikoaren kritiko sarkastiko handiena izan zela esaten da. Eguneroko bizitzan, ordea, bera bizi zen Ferney herri txikian lan egiten zuten jopuei baldintza bakarria ezartzen zien: ahalik eta debotoenak izatea. Zergatik? Voltairek berak bere hiztegi filosofikoan esaten duenez, «guztiz beharrezkoa da printze eta herrietzat, gorengo izaki baten ideia, kreaizailea, gobernatzailea, barkatzailea eta mendekatzailea dena, haien buruetan sakon idatzita izatea». Ateoen gizarte bat, bere ustez, ezinezkoa da. Finean, Bibliako errebelazioaren orde, arrazoi absolutua erreprezentatzen du Voltairek: moral bakarria leku guztietarako, ohitura unibertsalak herri guztientzat. Voltaireren bidez ikus dezakegu fedea erlijiotik arrazoimen eta zientziara nola higitu zen. Ez da egia, hortaz, Ilustrazioak arrazoiaren eta fedearen artean bereizketa sakona burutu zuela, aitzitik: fede bat alboratu (erlijio kristauarena) baina beste bat goratu zuen, arrazoiarena, zientziarena. Bigarren ilustrazio alemaniarra, nolabait, fede despota horren kritika izan zen. Arrazoiaren absolutizazioarekin, arrazionaltasuna diziplina bati baino ez zitzaion aitortu.

Oraingo ateismoak bide beretik jarraitzen du. Ez da ahaztu behar aurreko belaunaldiak Espainiaren destino unibertsalean enkarnatua zegoen hezur-haragizko jainko faxista bat erraustu beharra izan zuela. Baina gaur egungo belaunaldiak, ordea, Elizari eta haren botere politikoari egiten dizkion ezinbesteko kritikak aparte, Voltairek duela bi mende egin zituen kritikak zozoki errepikatu baino ez ditu egiten. Michel Onfray edo Richard Dawkins buru direla, behin eta berriz errepikatzen ari zaizkigu erlijioa eta mitoa txorakeriak, ipuinak, neurosi kolektiboak, sinesmen irrazionalen multzoak eta gezur irrazionalak baino ez direla. Hori hala bada, mitoak, maitasuna, nazioak... ere gezur multzoak ote dira? Kontua, hortaz, hau da: afera honen benetako dilema «arrazoaia ala mitoa?» galdera ote den gezurtatzea.

XIX-XX. mendeetako positibismoak zein materialismoak (marxismoa barne) erlijioa eta ikuskera mitikoak gezur hutsa zirela salatu zuten irmoki (aurretik ilustrazioak zabalduetako biderei jarraituz). Marxismoak ikuskera horren bertsio politiko nagusia kritikatu zuen, katolizismoa, gizakien alienazioa ahalbidetzen zuen ideologia zelakoan. Salto handi bat eginez, XX-XXI. mendeetan erlijioa eta mitoak ilusio hutsen kutxan sartu eta hantxe geratu ziren herdoilduta. Ikuskera positibistak ilusioa gezurarekin nahasi zuen. Baina Sigmund Freudek berak, *Ilusio baten etorkizuna* liburuan bertan gogorarazten zigunez, ilusioa ez da ezinbestean akatsa edo gezurra. Giza desioetatik sortzea da, hain zuzen, ilusioen osagai funtsezkoa. Ilusioak (mitoak, eta abar) frogagaitzak dira, eta horregatik ere ezetztaezinak, baina ez horregatik neurosi kolektibo baten emaitza.

Denboran aurrerago eginez, XX. mendean Nietzschek jada Jainkoaren heriotza proklamatu zigun: mamian, absolutuen heriotza. Gertaera horrek gizakia sufrimenduaren eta heriotzaren aurrean ikusle eta babesle gabe uzten zuen, bizitzaren absurdoan bakar-bakarrik, unibertso infinitu zabalean. Tragedia batez inguraturik eta horren kontziente, gainera: gizakiaren baitan bi inpultso daude, eta bien arteko gatazka zegoen atzean Nietzscheren ustez. Alde batetik, instintu apolinearra, ikuspegi kontenplatzailea, matematikoa, arrazionala dena, zientifikoa, legoke gizakiaren baitan; eta bestetik, instintu dionisiarra, inpultso musikala, artistikoa, naturarekin bat egiten duena, irrazionala, poetikoa

eta erlijioa dena. Bi instintuak gogorki kontrajarriak leudeke, bata bestearen kontra borrokan etengabe. Tragedia, hain zuzen, munduaren irrazionaltasuna edo absurdoa erakusteko, hura ukatzen duena erabili behar denean azaleratuko litzateke: absurdoa edo irrazionaltasuna azaltzeko, hura ukatzen duena, logosa edo arrazoia, alegia. Filosofiaren esparrutik Immanuel Kantek ederki azaldu zuen tragedia hau, arrazoiak intelektuak erantzun ezin dituen galderak egitera garamatzala esanez. Eta Fernando Pessoa, poetikoki, tragedia horren kontzientziaren angustia gordinki azaleratu zuen *Livro do dessassosego* liburuko pasarte batean. Arrazoia eta instintua, zientzia eta mitoa... borrokan gure baitan etengabe.

OLARIAGA, A. *Gara*. 2012ko uztaila. Egokitua.

- 1. Erlijioari dagokionez, nolako aldaketa eragin zuen Ilustrazio frantsesak XVIII. mendean?**
 - a) Oso handia, gizarteak zeukan Jainkoaren beharra birrintzera iritsi zelako.
 - b) Ez zen izan hainbestekoa, finean objektua bai, baina fedea ez zuelako aldatu.
 - c) Handia, erlijio katolikoan pitzadurak eragin zituelako, beste hiru fede berri ezartzearen ondorioz.
- 2. Nola jokatu zuen Voltairek erlijio katolikoarekiko?**
 - a) Arrazoiaren oinarrituta, gupidarik gabe egurtu zuen Eliza eta ez zion batere alde onik aitortzen.
 - b) Gustatu ez arren, Eliza defendatu zuen, ateoaren gizartearen beldur zelako.
 - c) Aurka borrokatu arren, alderdi onak ere aitortu zituen erlijio katolikoari.
- 3. Zer egin zuen Ilustrazioak fedeari dagokionez?**
 - a) Arrazoia eta fedea behingoagatik banandu eta desberdindu zituen.
 - b) Arrazoiaren eta zientziaren fedea kristauen fedearen maila berera goratu zuen.
 - c) Fedea arlo batetik bestera aldatu baino ez zuen egin.
- 4. Nolakoa da gaur egungo ateismoa?**
 - a) Aurreko belaunaldiaren eta Francoren itzal luzeak utzitako orbanak markatua.
 - b) Funtsean ez du ekarpen berririk egin eta duela bi mendeko leku berean dago kokatuta.
 - c) Bereizgarri nagusia izaera kritikoa da, batez ere Eliza eta haren botere politikoa erlijioarekiko.
- 5. Erlijioa eta mitoa arbuaituta, zer eragiten du oraingo ateismoak?**
 - a) Ustez errotuta dauzkagun sinismenak gezurrak ote diren planteatzea.
 - b) Erlijioaren eta mitoaren izaera irrazionalaren oinarriak eta ezaugarriak eztabaidatzea.
 - c) Arrazoiaren eta mitoaren artean nahitaez bata edo bestea aukeratu beharra.
- 6. Nola jokatu zuten erlijioarekiko XIX-XX. mendeetako korrante filosofiko batzuek?**
 - a) Ilustrazioarekin bat egin eta gezurrezkoa zela salatu zuten.
 - b) Materialismoaren jomuga nagusia erlijio katolikoa izan zen, alienazioarako aukera ematen zuelako.
 - c) Positibismoak gezurraren kritikari ilusioarena erantsi zion.
- 7. Zer zioen Freudek ilusioaren gainean?**
 - a) Ilusioak guztien neurosien ondorio direnez, frogagaitzak direla.
 - b) Neurosi kolektibo baten emaitzak ez direnez, gaitza dela ezeztatzea.
 - c) Ilusioak sortzeko prozesuan zerikusi handia daukatela giza nahiek.
- 8. Nola ikusten du Nietzschek gizakia Jainkoa hil dela adierazita?**
 - a) Inoren laguntzarik eta babesik gabe, bizi duen tragediaren jakitun.
 - b) Absoluturik gabe, gizakia azkenean libre eta burujabe unibertso amaigabean.
 - c) Nahikoa baliabiderik gabe sufrimenduari eta heriotzari aurre egiteko, erlijioaren premian.
- 9. Zertan nabari da gizakiak bizi duen tragedia handia?**
 - a) Instintu apolinearraren eta dionisiarraren arteko gatazka etengabean.
 - b) Irrazionaltasuna azaltzeko, arrazoia erabili beharrean.
 - c) Gatazka horretaz konturatzeak gizakiari eragiten dion larritasunean.

4. HE

IRAKURMENA

■ **2. ariketa: identifikatu testua osatzeko falta diren testu zatiak.**

Esan testuko hutsuneak (1, 2, 3...) betetzeko zein diren testu zatirik egokienak (A, B, C...).

Aukeran ematen zaizkizun testu zatitako bat sobera dago.

EROTUTA AL GAUDE DENOK?

European Neuropsychopharmacology aldizkariak 2011ko irailean kaleratu zuen “The Size and Burden of Mental Disorders and Other Disorders of the Brain in Europe” azterlanaren arabera, urtero-urtero, europarren %38,2k buruko nahasteren bat jasaten du; hau da, adin-tarte guztietako 165 milioi pertsonak. **1**

Ez da batere erraza buruko nahastea zer den definitzea. Hiru urtean zehar, Europako 30 herrialdetako 514 milioi pertsonari inkesta epidemiologikoak egin eta gero, Hans-Ulrich Wittchenek zuzendutako taldeak jasotako datuak aztertu zituen, buruko nahaste bat edo gehiago zuten parte-hartzaileak identifikatzeko. Nahaste bakoitza sintoma multzo jakin batek ezaugarritzen zuen. **2** Guztira, 25 buruko gaixotasun hartu zituzten kontuan. Emaizten arabera, hauek dira gure arteko gaitz ugariak eta ezagunenak: alkohola, droga-mendetasuna, arreta-defizita hiperaktibitatearekin, somatizazio-nahasteak, antsietate-nahasteak, insomnioa, depresioa, demenzia, portaera-nahasteak eta traumaren ondorengo estres-sindromea. **3**

Buruko nahasteen sailkapena asko aldatu da historian. **4** Zenbait hasierako saioren ondoren eta Frantziako Iraultza pil-pilean zegoela, Psikiatria zientzia bilakatu zen Philippe Pinel-i esker (1745-1826). Psikiatria modernoaren aitatzat jotzen den mediku frantses horrek buruko gaixotasunak aztertu zituen, eta “alienatuak” lau ataletan sailkatu zituen: zoroak, idiotak, maniakoak eta malenkoniatsuak. XX. mendearen hasieran, Freudek hiru kategoriatan banatu zituen buruko gaitzak: psikosiak, neurosiak eta perbertsioak. Gaur egun, buruko nahasteen sailkatzea eskola psikopatologikoen arabera bada ere, bi sailkapen nagusi daude mundu-mailan: Munduko Osasun Erakundearen CIE-10 eta DSM-IV. Amerikako Psikiatria Elkarteak 1952. urteaz gero argitaratzen duen DSMaren 1980ko hirugarren edizioan, sailkatzeko irizpideak aldatu egin ziren, diagnostikoaren fidagarritasuna eta erreproduktibitatea hobetzeko asmoz. **5**

Neurozientzietan izandako aurrerapenak gaixotasun neurologikoen eta psikologikoen arteko muga zehazten zailago egin omen dute. Lehenago jatorri psikologiko hutsa egozten zitzaient patologia batzuetan biologia-faktoreek duten eragina onartzen da gaur egun. Zenbait depresiotan, epilepsiatan eta mendetasunetan, aztarna genetikoa antzeman dituzte. Horren ondorioz, buruko nahastearen definizioa gero eta zabalagoa da, eta horrek, aditu zenbaiten iritziz, arazoak sortzen ditu. **6** Alegia, patologia larriak eta arinagoak “zaku berean” sartzea, eta galdekatutako pertsonengan nahaste horiek eragiten duten inpaktua zehatz-mehatz ez neurtzea; depresio igarokorrak eta kronikoak ez bereiztea, adibidez... eta psikoanalisian oinarritutako psikopatologia baztertzea.

Hori dela eta, Munduko Osasun Erakundearen aditu batzuen iritziz, 165 milioi pertsona horiek guztiek ez dute asistentzia psikiatrikorik behar, eta %38 hori benetako psikiatria-nahasteen adierazle izateaz gain, gure gizartearen estresaren adierazle ere izan daiteke. **7**

Jatetxe batean bakarrik bazkaltzea gustuko ez duzula? Jendaurrean hitz egiteko arazoak dituzula? Txeki bat norbaiten aurrean izenpetzea ezinezkoa zaizula? Herri-komunetan jendaurrean txiza egiteko prest ez zaudela? Printzipioz, emozio arruntak diren horiek guztiak patologia bilakatu eta tratamendua behar izateko bidean daude, farmazia industriaren mesederako. **8** Dirudienez, DSM-Vak joera hori areagotu egingo du. Buruko nahasteen pandemia baten aurrean al gaude? Eztabaidagaia ez da edonolakoa.

STÜRTZE, A. *www.gaiak.net*. 2012ko uztaila. Egokitua.

4. HE

IRAKURMENA

■ 2. ariketa. Erantzun-orria

- A. Horren ondorioz, gaitz berriak barnean hartu ziren; besteak beste, neurologiaren arlokoak direnak (dementziak, adibidez).
- B. Identifikatu diren zenbait nahaste, buruko gaixotasunak baino, bizi-baldintza txarrek (langabezia, prekarietatea, lehiakortasuna, gizarte-isolamendua...) eragindako gaitzak izan litezke.
- C. Hortaz, ikertzaileek gaitz mota ugari jo dituzte buruko nahastetzat. Baina nola liteke dementzia bezalako gaixotasun neurologiko bat sailkapen horretan sartzea?
- D. Buruko nahasteak XXI. mendeko Europaren osasun-erronkarik handientzat hartzen dute txostenaren egileek, eta, jakina, ikerketan gehiago inbertitzeko eskatzen dute, gaitz horien prebentzioa eta tratamendua hobetzeko.
- E. Orduan, non eta nola ezarri behar da bi horien arteko muga? Noiz da gaixotasuna neurologikoa eta noiz psikologikoa?
- F. Horrez gain, gero eta depresio gehiago dago, gero eta nahaste bipolar edo arretaren defizit-hiperaktibitate gehiago haurrengan; gero eta nerabe gehiago antidepressiboak hartzen dituztenak...
- G. Duela mende gutxi arte, zorotasuna ez zen gaixotasuna; arazo morala –giza galdukeriaren isla– edo espirituala –biraoak, deabruak hartuta izateaz– zen.
- H. Eta horixe da *European Neuropsychopharmacology* aldizkariak plazaratutako lanari egiten zaion kritika gogorrena.
- I. Depresioa, adibidez, honako ezaugarri hauetan oinarritu dute: tristura eta malenkonia, suminkortasuna, plazerik eza, apetitu falta edota, alderantziz, ikaragarritzko gosea, neke iraunkorra eta oinarririk gabea, etorkizuna modu ezkorrean ikustea eta suizidioari buruzko pentsamenduak...

Idatzi dagokion letra honako laukietan:

Hutsuneak	1	2	3	4	5	6	7	8
Testu zatiak								

4. HE

IRAKURMENA

3. ariketa: aukera anitzeko galderak

Irakurri ondorengo testua eta erantzun testu horri buruz jarraian egiten zaizkizun galderei.
 Markatu erantzuna. Bakarra da zuzena.

Nola markatu erantzun zuzena?

- a)
- b)
- c)

Eta oker markatu baduzu?

- a)
- b)
- c)

HAUSTURA HIDRAULIKOA

Azken hamarkadetan, homo sapiens delakoaren eraginez planetaren suntsipena areagotzen ari da: baso-soiltzeak, kutsadura mota guztiak, espezie-desagertze etengabea, baliabide naturalen ustiaketa basatia, energiaren kontsumo neurrigabea, erradioaktibitate artifizia... Eta orain, amildegirako bide zoragarri honetan, beste urrats bat egitera goaz. Petrolioaren eta gas naturalaren erreserben gainbehera saihestezinaren hasieran gaudela, energia-iturri ez-konbentzionalen ustiaketa basati eta erasokorra abiatu da.

Erregai fosilen erreserbak mugatuak dira, eta ekoizpenaren gailurra pasatu da jadanik. Hori dela eta, korporazioak ohikoak ez diren baliabideak ustiatzen hasi dira, energia-iturri garbietarako bidean trantsizio-energiak direla esanez. Horrelako erregai fosilen erauzketa ohiko baliabideena baino garestiagoa da, baina gaur egungo egoeran errentagarriak dira, ingurumena zaindu gabe, noski.

Gas naturalari dagokionez, ohiko gas-hobietan gasa poltsa handietan dago likido- edo gas-egoeran. Ustiatzen hasi diren gas ez-konbentzionalaren kasuan, gasa poltsa txikietan dago, arbel eta eskistoen artean. Arroka horiek iragazkortasun oso baxukoak dira, eta horrek zailtzen du gasaren mugimendua. Zulatze horizontaleko tekniken egon diren hobekuntzak bultzatuta, duela hamarkada bat gas horren ustiaketa komertziala abiatu zen AEBn.

Arbel-gasaren erauzketa haustura hidraulikoa deituriko teknika baten bidez egiten da (ingelesez, *fracking* deitua). Haustura hidraulikoan erauzketa-plataformatik ohiko zulaketa bertikala egiten da, 2-6 kilometroko sakoneraraino. Ondoren, zulaketa horizontala egiten da, 5 kilometroko luzeraraino ailega daitekeena. Erauzketa-plataforma batetik hainbat zulaketa horizontal egiten dira, eta ohikoa 6 egitea da.

Horren ostean, zulatutako hodi horizontaleko puntu urrunenean leherketa eragiten da, inguruko harriak pitzatzeko. Orduan, zulatutako hoditik likido-nahasketa bat injektatzen da oso presio handian, 345 eta 690 atmosfera artekoa. Gainpresio horrek aurrez sorturiko pitzadurak handitzen eta luzatzen ditu, eta arbelaren haustura areagotu egiten da. Horrela, arroketa dagoen gasak pitzaduretatik ihes egiten du eta injektatutako likidoan murgiltzen da. Behin likidoaren ponpaketa amaituta, likidoaren zati bat atzera bueltan igotzen da gasarekin. Berreskuratutako likidotik metanoa bereizten da, eta gainerakoa lurrazaleko igerileku moduko batzuetan pilatzen da. Gainpresioaren ziklo hori 15 aldiz errepikatzen da, ustiatzen ari den eskualdearen haustura areagotzeko.

Haustura-prozesu hori amaitu ondoren, ustiatutako eskualde horizontala blokeatu egiten da, hodian nolabaiteko tapoia jarrita. Alboko ingurunearen erauzketarekin jarraitzeko, beste leherketa bat eragiten da hurbilago dagoen beste puntu batean, eta berriro errepikatzen da guztia. Prozesu hori behin eta berriro errepikatzen da hodi horizontalaren luzera guztia erauzi arte. Adibidez, 1,2 kilometroko zulaketa horizontal batean 8-13 leherketa/haustura-prozesu burutzen dira.

Injektatzen den likido-nahasketaren %98 ura eta harea da. Gainerakoa hainbat gehigarri kimikoz osatuta dago, baina konposaketa zehatza ustiatzen ari den eskualdearen ezaugarrien arabera da. Zoritzarrez, multinazionalak erabiltzen dituzten produktu kimiko guztien zerrenda ez da guztiz ezaguna.

Beste alde batetik, lurrazalera bueltatzen den likido-kantitatea putzua zulatzen den eskualdearen arabera da. Hala ere, datu kontrajarriak daude. Iturrien arabera, injektatutako likidoaren %15 eta 80 artean berreskuratzen da. Lur azpian gelditzen den likidoa oso toxikoa da, eta denbora luzez putzutik ateratzen jarraitzen du kantitate txikietan.

Argi dagoenez, haustura hidraulikoak energia-iturri berri bat eskaintzen digu denboraldi baterako. Hala ere, merezi du erauzketa mota hori egitea? Ikuspegi estrategiko batetik, haustura hidraulikoaren aldeko apustuak teknologia garbiagoetara pasatzeko urratsa atzeratuko du ezinbestez, eta, gainera, gas horren errekuntzak negutegi-efektua areagotu egingo du. Hori eztaba daezina da.

CAMPILLO, J.M. *www.gaiak.net*. 2012ko martxo. Egokitua.

1. Egilearen ustez, planetaren suntsipenari dagokionez, zein egoeratan gaude?

- a) Egoera gero eta okerragoa da eta, gainera, okerreko pausoa ematera goaz.
- b) Ohiko energia-iturrien erreserbak agortzen ari gara eta horrek amildegia ertzera eramanez gaitu.
- c) Ez dago konponbiderik energia-iturri ez-konbentzionalen ustiapena hastera goazelako.

2. Zergatik dira oraingoz errentagarriak energia-iturri ez-konbentzionalak?

- a) Garestiagoak izan arren, ustiapen- eta ekoizpen-abantaila nabarmenak daukatelako.
- b) Trantsizio-energiak direnez, kostuak arintzeko diru-laguntza handiak jasotzen dituztelako.
- c) Ez direlako behar bezala begiratzen kontuan izan beharreko zenbait alderdi.

3. Non dago gas konbentzionalaren eta ez-konbentzionalaren arteko alde nagusia?

- a) Gas ez-konbentzionala lortzea merkeagoa dela ez bada ingurumenari eragindako kaltea kontuan hartzen.
- b) Gas ez-konbentzionala arroka edo haitz artean egoten da.
- c) Ez-konbentzionala ez bezala, gas naturala likido- edo gas-egoeran egon ohi da.

4. Zein da haustura hidraulikoaren bereizgarri nagusia?

- a) Injektatutako likido-nahasketa gainpresioaren bidez ateratzea kanpora.
- b) Zulaketa horizontalean, gainpresioaren bidez harrien pitzadura handitzea gasa ateratzeko.
- c) Erauzketa-plataformatik 2-6 kilometroko zulaketa bertikala egitea haitza hausteko.

5. Lehen haustura-prozesuaren ondoren, zer egiten da?

- a) Zulo horizontala itxi, ondoan beste bat zabaldu eta prozesua behin eta berriz errepikatu.
- b) Berriz ere injektatzen da likido-nahasketa, gera daitekeen gas guztia jasotzeko.
- c) Beste hainbat aldiz egiten da prozesu osoa zulo berean, pixkanaka sarrerara gerturatuz.

6. Nolako izan ohi da haustura hidraulikoetan erabiltzen den likido-nahasketa?

- a) Ez da beti berdina izaten, eta horretan eragina du zulatu beharreko lekuaren nolakotasunak.
- b) Ezezaguna, produktu kimikoen zerrenda sekrelopean daukatelako multinazionalak.
- c) Likidoaren osagai nagusiak gehigarri kimikoak dira, urarekin eta hondarrarekin batera.

7. Zer gertatzen da lurpean injektatutako likidoarekin?

- a) Pixkanaka bada ere, etenik gabe ateratzen da lurrazalera.
- b) Adituen arabera, gehien-gehiena kanporatu eta berreskuratzen egiten da.
- c) Ezin da aurreikusi zenbat geratuko den arroken artean, osagai kimikoen baitan dagoelako.

8. Zer iritzi dauka egileak haustura hidraulikoaren gainean?

- a) Epe laburrera, haustura hidraulikoaren teknologia mehatxua baino aukera dela.
- b) Haustura hidraulikoak negutegi-efektua areagotuko duela.
- c) Haustura hidraulikoa behaztopa dela teknologia garbiagoetarako bidean.

4. HE

IDAZMENA

Oharrak:

- Ondoren, **bi ariketa** dituzu. **Egin biak.**
- **Kontuan hartu gaia** eta eskatzen zaizun ariketa mota.
- **Idatzi** garbi eta **saiatu** letra argia egiten.
- **Erabili** boligrafoa idazteko.
- Zuzentzeko orduan, hauexek hartuko dira kontuan:
 - eskatutako guztiari erantzun diozun,
 - ideiak garbi adierazi dituzun,
 - euskara nola erabili duzun: egokitasuna, zuzentasuna eta aberastasuna.

**ZIRRIBORROAK EGITEKO LEKUA ONDORENGO ORRIETAN DAUKAZU.
EGIN ARIKETAK HORRETTARAKO EMAN ZAIZKIZUN APARTEKO ORRIETAN.**

■ 1. ariketa

Hartu kontuan gaia eta idatzi **gutuna**.

Idatzi 250 hitz gutxienez.

GAIA: Zuen zerbitzuan lan bat azpikontratatu nahi eta lehiaketa atera zenuten. Lehiaketako ohiko jarraibideak eta epeak beteta, kontratua nori eman ebatzi zenuten eta lehiaketan parte hartu zuten guztiei jakinarazi zenieten emaitza.

Lehiakideetako batek ez du ontzat jo erabakia eta ezbaian jarri ditu puntuak emateko orduan lehiaketa-oinarrietan aintzat hartutako irizpideak, baita inpartzialtasunez jokatu duzuen ere.

Idatzi gutuna enpresa horretako arduradunari, azaldu baliatutako irizpideen erabileran ez dela ezer ilun edo ezkuturik eta agertu zure haserrea zuen profesionaltasuna kolokan jarri duelako.

■ **2. ariketa:** Idatzi iritzi-artikulu bat *Administrazioa Euskaraz* aldizkarirako.

- Jarraian, egunkari edota aldizkarietan argitaratutako **zenbait testu-aipamen** aurkituko duzu. **Aukeratu bat**, eta, bertan jasotzen den informazioa oinarri harturik, **idatzi iritzi-artikulua**.
- Idatzi 250 hitz gutxienez.
- Egin testu antolatua eta koherentea. Azaldu iritziak, garatu eta lotu daukazun ideiak. Baina, ez kopiatu besterik gabe lagungarri gisa ematen zaizkizun aipamenak.

1. testu-aipamena

**KRISIA ETA ETORKINEN AURKAKO
IRITZIAK**

Galdekatutako herritarren %40k uste zuten immigrazioa handiagoa izateak kalte egingo ziela ongizatean, eta zailagoa izango zutela gizarte-laguntzak lortzea eta lana topatzea, adibidez.

Batzuen ustez, etorkinen inguruan ikuspegi utilitarista dago. Jendearen artean oso zabaldua dagoen ustea jartzen dute horren adibide: orain arte etorkinek bertakoek nahi ez zituzten lanak egin dituztela. Orain, langabe askok uste dute lan horiek onak liratekeela beraiantzat, eta oztopo gisa ikusten dituzte etorkinak. Halaber, lehentasun nazionalaren sentipena oso barneratuta dago; izan ere, jende askok uste du bertakoa izateagatik lehentasuna duela lana izateko edo gizarte-laguntzak jasotzeko. Krisi-garaian, halako iritziak gehiago entzuten dira.

Berria. 2010eko uztaila. Egokitua.

2. testu-aipamena

TEKNOKRAZIA

Gogoratu naiz orain dela urte batzuk gure herrian gertatu zenaz. Alkate berriak herri-lanetako brigadako lagun bati zer edo zer esan omen zion, egiten ari zena gaizki irudituta. Brigadakoak erantzun omen zion: «Hi, lasai, e, hi lau urterako bakarrik hago eta».

Udalbatza aldatzen den bakoitzean, seguru nago, teknikarien tiraderetan gorderik dauden hainbat proiektu mahai gainera irteten direla. Seguru nago hautetsi berriek teknikariengana jotzen dutela etengabe gaien nondik norakoak jakiteko. Uste gabe, haien menpe jartzen dira, konplexuak baitira gaiak.

Ez naiz herri-lanetako brigadako langileez kezkatzen, baizik eta gure udaletxeetan hain ondo finkaturik ditugun idazkari, teknikari, ekonomialari, abokatu, ingeniari eta arkitektoez baizik, batzuk aipatzearen. Gehiago ikusten dut gure etorkizuna haien esku, hautetsien esku baino.

AIZPURUA, M. *Berria*, 2011ko ekaina.
Egokitua

3. testu-aipamena

HERRITARRAK BORROKAN

Akotz, Bidarte, Hiriburu edo Urketa herrietako herritarrak dira azken asteotan telefonia mugikorreko antenen aurka oldartu direnak, benetako arriskuan daudela uste dutelako. Herritarrek diote lege-testuek operadoreen alde egiten dutela beti, ez dutela oztoporik jartzen. Adituek txosten batean omen diote arriskutsuak direla, eta erietxe eta eskoletatik urruti ipini behar direla antenak, baina ez da betetzen. Beste adibide bat ere jarri dute: «67an amiantoa agertu, eta guztiek esaten zuten ez zuela inongo kalterik ekarriko. Hogei urte geroago debekatu egin zuten arriskutsua zelako».

Herritarrek argi utzi nahi izan dute ez daudela modernitatearen» aurka, baina auzoetan finkatu nahi dizkieten antenek ez diotela behar bati erantzuten, telefonia-konpainien interesei baizik.

Gara, 2008ko ekaina. Egokitua

5. testu-aipamena

PREZIOAK GORA, SOLDATAK BEHERA

OCU kontsumitzailearen elkarteak datu batzuk argitaratu ditu euroa sartu zenetik prezioak zenbateraino igo diren erakusteko. Espainiako Estatuan bizitza garestitu egin da: batz besteko soldata %13,7 besterik ez da igo (19.802 €-tik 22.511 €-ra); KPIa (Kontsumoko Prezioen Indizea), berriz, %23. Alegia, lehen baino pobregoak gara. Hona hemen igoeren adibide batzuk: patatak %116, ogia %85, ilea moztea %36, aparkalekuak... Oro har, familia baten erosketa-saskia %48 igo da 10 urtean.

Garraioa ere ez da atzean geratu: erregaiak %82 igo dira, autobusa %48, trena %45... Azkenik, etxebizitzaren prezioa %66 igo da hamar urteotan

ZARATE, P. *www.zuzeu.com*. 2011ko abendua. Egokitua.

4. testu-aipamena

EMAKUMEEN PRESENTZIA KOMUNIKABIDEETAN

Oro har emakumezkoen lorpenak, baita kirol-arloan egiten dituztenak ere, ezkutuan gelditzen dira komunikabideetan. Dirudienek, oraindik ere, komunikabideak gizezkoen sentsibilitate eta interesen arabera egituratuak daude nagusiki eta hori benetako arazoa da antza. Kirol erredakzioetan zein, oro har, komunikabideetako erantzukizun-postuetan emakume kazetari gutxi egoteak ere eragin handia du horretan.

Mentalitate aldaketa behar dugu gizarteko arlo guztietan, eta, bereziki, komunikabideetan. Eta, horretarako, emakume gehiago behar dira kirol-erredakzioetan, kirol-prentsan zein komunikabideetako goi-karguetan. Horrekin batera, ezinbestekoa da emakume kirolariei eta emakumeek egiten dituzten kirolei laguntzea, prestigio soziala lor dezaten eta euren lorpenak ere ager daitezen.

JUARISTI, P. *Berria*, 2011ko martxoa. Egokitua

6. testu-aipamena

IZANA ZER DA, IZENIK EZ BADU?

Produktu baten zigiluak bermea eman diezaioke kontsumitzaileari; nondik datorren ezagutzeak, konfiantza. Baina aurrerantzean baliteke arrainen eta itsaskien kontserben etiketetan datu hori ez aurkitzea: Europako Parlamentuak Arrantza Batzordearen asmoak atzera bota, eta erabaki du ez dela derrigorrezkoa izango jatorria zehaztea. Arrantza-politikaren erreforma negoziatzen ari dira uneotan, eta azkenean Parlamentuaren asmoak gauzatuko balira, 2014-2020 urteen artean indarrean legoke neurria. Behin-behineko erabaki horrek askotariko iritziak sortu ditu Euskal Herriko sektorean. Askok nahiago dute oraindik zuhur jokatu; ekoizle txiki eta arrantzaleen artean, berriz, aurkako jarrerak dira nagusi.

Berria. 2012ko urria. Egokitua.

Zirriborroetarako lekua

Zirriborroetarako lekua

Zirriborroetarako lekua

Ziriborroetarako lekua

Zirriborroetarako lekua

IVAP

HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA

4. HE / IRAKURMENA
ERANTZUN ZUZENAK

- 1. ariketa: Aukera anitzeko galderak
- Irakurgaia: «Ateismoaren kritika»

1.	B	6.	A
2.	C	7.	C
3.	C	8.	A
4	B	9.	B
5.	A		

- 2. ariketa: Sartu testu zatia dagokion hutsunean
- Irakurgaia: «Erotuta al gaude denok?»

Hutsuneak	1	2	3	4	5	6	7	8
Testu zatiak	D	I	C	G	A	H	B	F

E. aukera sobera dago.

- 3. ariketa: Aukera anitzeko galderak
- Irakurgaia: «Haustura hidraulikoa»

1.	A	5.	C
2.	C	6.	A
3.	B	7.	A
4	B	8.	C